

# «LORRIN» LAMIÑA TA MUTILLA

(Neure erriko mendigoizale bizkorrai biotzez)

Antziña, «Eperlabarreta» eritxon basetxe ederrian, emakume bat seme bategaz bizi zan. Semia, mutil morrosko errimia zan: layetan, bedar ebaten eta enparau lanak bizkor eta ondo egiten bera lakorik an inguruetan etzan. Eta indarketa guztietan be txapeldun izaten zalako, erri ta erbestekuak «Indartsu» nagaz ezagutzen eben. Eta guztijak, abo batez esaten eben, alako mutil adoreturik egundo ezebela ezagutu ta abar.

Illuntze baten, semiak amari esan eutson:

—Ama, bijar goizian Saibi mendira iratan jua biar dot. Eguraldijak antz ona dakar; eta uste dodanez mendi aretan iria aspaldiko arorik onenian aurkituko dot. Ta ganera, Urkioletako neska-mutillak be, bijar goizian ei-doiiaz mendi orretara ira ebaten; eta neuk be, ira ebate ta ekartiak eurakaz batera egin gura dodaz. Niretzat aizkide onak izan dira beti-ta...

—Asmo ori —amak esan eutson— urrengo asterako atzeratu oba dozu. Entzun dodanez ba, «Lorrin» lamiña, ainbeste gurasori negar eragin dautson lamiña ankerra, Salluente'ko artzulo aurreko landatxuan urrezko aulki baten jazarrita, egunokaz egoten da. Ta aren gurari ta asmo gustijak, beti lez, nundik gastiak atzipetu ei-dira. Orregaitik ba, ene semia, basorantza bijar etzaitz abijau... Bestela galdua zara...

Mutillak, amaren itzak entzutian, barre algara andi bat jaurti eban; eta irribarrez esan eutson:

—Galdua neu? «Lorrin» lamiñaren bildurrez nazala uste dozu ala? Nire indartsu ospia nun litzake...? ¡Ondiño olakorik!

—Ene semia, indartsua ta adortsua zaran arren, munduko barri ondiño ez dakizu. Mundu onetan ba, maltzur asko dago: ta or-emenka sareak ugari zabalduaz, gaurko gastiak atzipetuten era bitara diardue. Indarbidez ta atsegin-bidez. Indarbidezko soka latzaz arrapau ezin diran gizon senduak, leunkeri ta aragikerizko ari me, leun-bigunaz, sarritan beinguan lotzen dabez... begira ba maite! Askoren maltzurkerijak luzez azken ba-kuak dira-ta...

—Esan, esan gura dozuna! Lamiña daia-ta, nire asmuetan atzera-mardorik eztot egingo-ta. Ni bildurtzekorik ondiño ezta yayo ta yayoko

bere ez... Bijar goizian, lamiña ta sorgin guztijen ganetik mendiratuko naz ta kito.

«Eperlabarreta»ko mutil arro ta eretxija bere ama onaren onu on gustijak alde batera itxita, bijamon goizian Saibi'rantza abijau zan. Eta Salluente'ra eldu zanian, artzuluaren aurreko landatxuan «Lorrin» lamiñia urrezko aulki eder baten jazarrita ulia orrazten aurkitu eban. «Indartsuk», ikusi ebanekoxe, urrengo aupadia jaurti eutson:

«Lorrin» lamiñatzarrak

Eztau adorerik;

«Indartsu arrapetako

Ez dauko indarrik.

Itzok entzutian, lamiñaren arpegija asarre bizijan jarri zan; eta eskuetan eban orrazi gorrija mutillari amurruz jaurtijaz, abots itzalaz esan eutson:

—Mutil arro ta zitala! Indartsua ta adoretsua azan edo ez, illuntzeko ipar-aizia izango dot ziñaldari...

«Indartsu»k, orrazijari polita eretxita, kolkuan sartu eban. Eta kolkuan sartiaz batera paparra erre yakon. Ulu andi bat egiñaz «Inpernuko bitxi madarikatual» esanda, orrazi bakan erre kara jaurti eban. Eta orrazija ureratziaz, erre kaku ur gustija irakin egin zan.

Jazokun onagaz, mutillak, ikera andirik ez eban artu; ta «lamiñaen gauzak» esanda, aurrera jarrai eban, Saibi mendirarte. An, egun gustijan, Urkioleta'ko gastiakaz batera ira ebaten ekin eban. Eta iiluntzean, Eskumendi'ko labar andi baten jazarrita, abestuten asi zan:

Auzko nekatillen

abots-gozatsuz,

ipar-axia dator

ames ez titsuaz.

Goiko mendijetako

zelai ederretan,

maitia dantzan dabil

urrezko landetan.

Eguzki eder orrek

bi maitale ditu,

esker-txar ankerragaz

bijak erail dituz.

Abestuten iarduan bitartian, «Lorrin» lamiña neska gaste baten itxura ederrian agertu yakon. Eta abots ezitsuaz esan eutson:

—Oi «Indartsu», zeñen ederto zagozan! Illuntzeko ozkiro gozaroan zeure abesti politak atsegingarri yataz. Zeure indar eta adore andijaren ospiak, zeu ezagutzera ekarri nau. Zuri irabaztekorik emen inguruetan be, eztaia esaten diardue ta...

Itzok entzutean, «Indartsuk», senetik urtenda lez, poz-pozik esan eutson:

—Nor zara zeu? Eguzkitik illargira, ta illargitik eguzkira ixan nazan arren, zu lakorik egundo eztot ikusi...

—Goiko mendijetako zelai ederretan —erantzun eutson neskiak— dantzatuten naiz ni. Mendi gallur orren ostian da nire biztokija. Oi zeñen ederra bera! Bertako aiziak, eguzki egaletik, illargijaren erditik eta izarren artetik leunki igaroaz, ametsik zoragarrienakaz atseginduten gaituz; eta geure bijotzak, mitxeletak lez, lorarik lora egaztuaz, bizitza atsegin utsa egiten yaku. An bai edertasuna! Bertako gauzak azaltzeko nire miña elitzake gai... edestija egiteko be, urrezko idazkortza biarko litzake-ta...

Leunkerizko itz onekaz, lamiñak mutillari eskua luzatuta, beragaz juateko esan eutson. Eta mutil lilluratua lamiñari eskua emonda, an jua zan sasi ta arantza guztijen ganetik Salluente'ko landatxurarte.

Orduban, landatxua ezti biurtu zan; erreka ura esne; ta arrizko zubi trauzkilla, oster, lorazkua biurtu zan. «Indartsu», lorazko zubija pozik igarotera jojala, «Lorrin» lamiña ankerrak, errime bultzatubaz artzulo edo koba baltz bildurgarrira, buruz aurrera jaurti eban.

Eta lamiña gustijak orduban, an barruan, makillakaz ta burduntzijakaz zartada ederrak emonaz, bizkar gustija birrindu eutsoen. Eta danak, abo batez, iñun diran irañak egiñaz esan eutsoen:

—Nun dozak indarrok eta adoriok...? Goizian arro-arro jaurti doan aupadiaren anotsik etxuago entzuten... Mututu egin az ala? Orain ire nago-sijak geu gozak: artzuloaren barruan ondo lotua ago-ta. Ta aurrerantzian, ire egunoroko janari onena makillia ta atsekaña baño besterik eztok izango...

Ganeko egunetan, Salluente'ko artzulo ingurutik igaroten ziran gustijak, «Eperlabarreta'ko» mutillaren ulu ta negarrakaz nastian urrengo itzok entzuten ebezan:

—Neutzaz geyegi uste nebalako ta neure ama onaren onu onak ain-

tzat ez artziarren galdu naiz. Eztijak mingotsa, loriak arantzia ta une labur bateko atsegin zoruak, atsekabe andi ta luziak leporatu daustez...

Eta gaste askok itz onekaz biidurrez dardar eginda, euren gurasuen esanak zintzo egiñaz, on-onak izateko asmoa artzen eben.

\*  
--  
\*

Itaunak.—Nor zan Indartsu? Iratan urten aurretik zer esan eutson amak eta zergaitik urten eban Indartsu'k? Zer egin eban «Lorrin» lamiñia ikusi ebanekoxe? Zelan erantzun eutson lamiñiak? Illuntzian nor agertu yakon? Zelan atzipetu eban lamiñiak Indartsu? Zelako arrera egin eutsen lamiñiak koban? Zein asmo artu eben gaste askok?

*Mañariko*

## Aitatasunak zer dakarren

Aita bat etxeratu zan bein, egun osoko lanak nekatuta. Elduaz batera, aretora zuzendu ta ango jarleku zabal makur baten ondatu zan, apaiteko deitzen eben bitartean egunerokoa irakurteko asmuz. Bat-batez, gelea batetik bestera igaro eben beizain txiki biren zarata entzun zan; ondorengoak inditar basati taldea zirudien, ulu ta irrintzika.

—Gaztetxoak, ordua da bakotxa bere etxera joateko —diño aitak, begiak izparringitik jaso gabe—. Ta ia ordua da apaltzeko.

Dana ixillik... baña ez luzaroan. Barrien barriz iskabil, zarata ta otsa, iñoz baño gogorrago; azkenik, irakurle nekatuaren belauetara igon zan, salto edo jauzi baten, beizaiñetako bat. Au bai zala au!

—Esan dautzuet, gazteak, bakotxa doiala bere etxera! —ots egin eban aitak, asarre sumiñetan—. Kanpora emetik!

Barriro be ixiltasun bete-betea; azkenez oiur me batek ausi eban:

—Baña, aita, guztiok bizi gara emen. Zeureak gaituzu!